

Urnieta, 2026ko urtarrilaren 19an

## ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Urnieta Udalak irmotasun osoz gaitzesten du udalerrian berriki gertatutako eraso sexista.

Udalak argi utzi nahi du ez duela inola ere onartzen emakumeen eskubideak urratzen dituzten erasorik. Hau ez da gertakari isolatu bat, ezta azalpenik gabeko ekintza bat ere. Hartutako erabaki kontziente baten emaitza da: emakumeen askatasuna urratzea. Indarkeria matxistak oinarrian duen ideologiak emakumeak kontrolpean eduki nahi ditu, eta erasotzaileak beren nagusitasuna indarkeriaren bidez inposatzera bultzatzen ditu. Horregatik, adierazpen honek erasotzailearen jarrera onartezina jarri nahi du jomugan.

Urnieta ez dago lekuri horrelako jokabideentzat. Erasotzaileei argi adierazi nahi diegu beren ekintzek ez dutela inolako babes sozialik. Komunitate gisa, gure erantzukizuna da haien inpunitate-espazioak mugatzea eta beldurraren bidez lortu nahi duten kontrol hori haustea. Horretarako, ezinbestekoa da herriaren erantzun irmoa jarrerok deslegitimizatzeko.

Urnieta Udalak ardura osoa du udalerrian bizi diren pertsona oroaren eskubideak bermatzeko; beraz, ez du atsedetik hartuko ahalegin horretan, guztion artean arazo sozial larri honen irtenbidea bilatu beharra baitago. Prozesu horretan, ezinbestekoa da Urnieta adierazpide egokiak eskaintzea, oro har, emakumeen aurkako eraso guztiak irmotasunez gaitzetsi ditzaten.

Hori guztia dela eta, Urnieta Udalak adierazten du erabat arbuiatzen duela udalerrian gertatutako indarkeria matxista, eta herritarrei dei egiten die urtarrilaren 20an, 18:30ean, San Juan plazan, kolektibo feministek egingo duten elkarretaratzera.

Urnieta, a 19 de enero de 2026

## DECLARACIÓN INSTITUCIONAL

El Ayuntamiento de Urnieta condena enérgicamente la agresión sexista ocurrida recientemente en el municipio.

El Ayuntamiento quiere dejar claro que no acepta ninguna agresión que vulnere los derechos de las mujeres. Esto no es un hecho aislado ni una acción sin explicación. Es el resultado de una decisión consciente: vulnerar la libertad de las mujeres. La ideología en la que se sustenta la violencia machista pretende controlar a las mujeres e incita a los agresores a imponer su superioridad a través de la violencia. Por ello, esta declaración pretende señalar la actitud inaceptable del agresor.

En Urnieta no hay sitio para este tipo de conductas. Queremos dejar claro a los agresores que sus acciones no tienen ningún tipo de apoyo social. Como comunidad, es nuestra responsabilidad limitar sus espacios de impunidad y romper ese control que pretenden obtener a través del miedo. Para ello, es imprescindible una respuesta contundente del pueblo para deslegitimar estas actitudes.

El Ayuntamiento de Urnieta tiene la responsabilidad de garantizar los derechos de todas las personas que viven en el municipio, por lo que no descansará en ese empeño, ya que es necesario entre toda la ciudadanía buscar la solución a este grave problema social. En este proceso, es imprescindible ofrecer a las y los urnietarras las expresiones adecuadas para que, en general, condenen con firmeza todas las agresiones contra las mujeres.

Por todo ello, el Ayuntamiento de Urnieta manifiesta su más rotundo rechazo a la violencia machista que se ha producido en el municipio y hace un llamamiento a la ciudadanía a la concentración organizada por los colectivos feministas, que tendrá lugar el día 20 de enero a las 18:30 horas en la plaza San Juan.